

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza

Goizane Miruri Muruaga

HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

AURKIBIDEA

1. Proiektuaren azalpena	2.orri
2. Proiektuaren abiapuntua	2.orri
3. Proiektuaren oinarriak	3.orri
3.1. Getxo herriaren deskribapena: datu soziologiko eta soziolinguistiko nagusiak	3.orri
3.2. Kirolaren garrantzia Getxon. Getxo marka	4.orri
3.3. Getxoko kirol elkarteetan euskararen presentzia areagotzeko egitasmoa: <i>GEHItu kirola</i>	5.orri
3.3.1. Egitasmoaren deskribapena	
3.3.2. Getxo markako elkarte bakoitzaren deskribapena	
3.3.3. Getxo markan sartzeko irizpideak	
3.3.4. Egitasmoaren orain arteko emaitzak	
3.4. Une honetan antzematen diren hutsuneak eta premiak	10.orri
3.5. Planteatzen ditugun plan estrategikorako oinarriak	21.orri
4. Proiektuaren erreferentziak	27.orri
4.1. Esku-hartzearen diseinuan kontuan hartu ditugun erreferentziak edota ereduak	27.orri
4.2. Diseinuaren ezaugarri nagusiak	27.orri
5. Proiektuaren diseinu metodologikoa	28.orri
6. Proiektuaren ebaluazioa	31.orri
7. Bibliografia	34.orri

1. Proiektuaren azalpena

Sakontze egitasmo hau "Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza" deitu dugu.

HIZNET ikastaroaren barruan, bukaera lan bezala, aurkeztutako egitasmoa da. Honen helburua, Getxon, gazte eta ume gehien biltzen dituen kirol elkarteak eta marka euskalduntzea da, futbol elkarteak eta Getxo marka-futbola, hain zuzen ere.

2. Proiektuaren abiapuntua

Getxoko euskara-elkarteko langilea naiz eta gure helburuetako bat Getxon euskararen erabilera sustatzea da. Hainbat proiektu kudeatzen ditugu eta horietako bat, Getxoko udalarekin elkarlanean, kirol elkarteak euskarara hurbiltzea da. Lan hau egitera bultzatu nauena *Getxo marka* Udalak sustatutako proiektua izanda hizkuntzaren inguruko irizpiderik ez dagoela da. Horretaz gain, futbol eskolan 600bat umek parte hartzen dute, gehienak euskaldunak, eta horiek ere ez daukate bermatuta kirola euskaraz egitea.

Proiektu hau beharrezkoa da, alde batetik, Getxoko Udaleko marka bat izanda, kirol arlokoa, umeek behintzat bermatuta izan behar dutelako euskaraz kirola egitea, are gehiago euskara arlotik hori exijitzen ari zaienean gainerako kirol elkarteei; eta bestetik, normalizazioaren bidean, edozein esparrutan euskaraz jarduteko aukera bermatuta izan beharko lukeelako herritar orok.

Proiektu honekin Getxo markaren sustatzaileei baliabideak eman nahi zaizkie marka osoa euskalduntzeko. Hau da, futbol elkarteak abiapuntu hartuta plangintza bat diseinatzea euskararen presentzia gero eta handiagoa izateko. Horretaz gain, irizpide batzuk markatzea Getxo markaren barruan dauden gainontzeko kirol elkarteak eta sartuko direnak hizkuntza irizpideak kontuak hartzeko.

3. Proiektuaren oinarriak

3.1. Getxo herriaren deskribapena: datu soziologiko eta soziolinguistiko nagusiak:

Getxo Udalerrian, 2006ko Udal Erroldako datuen arabera, 81.626 lagun bizi dira. Euskararen ezagutza datuak EUSTATEk 2006an egindako erroldatik ateratakoak dira eta bi urtetik gorako Getxoko biztanleak hartzen ditu kontuan. Horietatik % 29 euskalduna da, % 27 ia euskalduna eta % 44 erdalduna. Getxon, 23.000 lagun dira euskaldunak, hamar biztanletik hiru, hain zuzen ere.

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera:

2006an	2-14 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	>= 65 urte
Euskaldunak	57,9	58,3	36,7	23,8	16,3	10,4	13,32
Ia euskaldunak	28,1	26,7	38,7	33,2	25,8	21,8	17,3
Erdaldunak	13,9	14,8	24,5	42,8	56,8	67,6	70,3

24 urte edo gutxiagoko gazteen artean ia % 60 euskalduna da. Getxon, euskararen ikaste prozesua oraindik eskolarekin oso lotuta dago, ume gehienek euskara eskolatik bakarrik jaso dute eta beraz, euren euskararen ezagutza eta gaitasuna hezkuntzarekin oso lotuta dago. Datu horiek hobeto ulertzeko, ezinbestekoa da hizkuntza-ereduei erreparatzea. 2011-2012 ikasturtean, irakaskuntza ez-unibertsitarioan, eredu eta adinka hau izan da banaketa:

2011-2012 ikasturtea	A eredu	B eredu	D eredu
Haur Hezkuntza (2-6 urte)	% 20,6	% 31,2	% 48,1
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)	% 20,7	% 29,7	% 49,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	% 30	% 22,9	% 46,4
Batxilergoa (16-18 urte)	% 52,1	---	% 47,8
Lanbide Heziketa	% 70,7	---	% 29,2
GUZTIRA	% 28,7	% 24	% 47,1

D eredia nagusi izan arren, Getxon A eredia oso indartsu dagoela ikus dezakegu. 18 urtera bitarteko 10 getxotarretik 3k A eredian ikasten du. Ume/gazte horiek ez dute euskara ikasiko, ez hezkuntza formalean, behintzat.

3.2. Kirolaren garrantzia Getxon. *Getxo marka*

Getxon, gainontzeko herrietan bezala, kirolak garrantzi handia dauka. Horretaz jabeturik, Eusko Jaurlaritzak 14/1998 legea publikatu zuen EHAA 1998ko ekainaren 25ean, *Euskadiko kirolarena*.

Lege horren lehenengo kapituluan, *Xedapen orokorrak*, bigarren artikuluan, *Printzipio gidariak* honela dio:

- 1.–*Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.*
- 2.– *Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola askatasunez eta norbere borondatez egitea.*
- 3.– *Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute (...)*

Legean, hizkuntza irizpideak *Xedapen gehigarriak* atalean ageri da, hirugarren puntuan *kirol-federazioen hizkuntza normalkuntza* izenburuarekin, eta honela dio:

Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normaltzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, programetan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak *Kirolaren euskal plana 2003-2007* egin zuen 2003an. Besteak beste, 14/1998 legeak zituen hutsuneei aurre egiteko. Plan horretan ere, hizkuntza normalkuntzari egiten dion erreferentzia *bestelako zehar alderdiak* atalean ageri da 4.5.2.1. *Euskara* puntuan, eta ondorioak hauek dira:

Euskarari dagokionez, lehenik eta behin, esan daiteke inolako okerrik gabe, **egungo errealitateak ezinezko egiten duela kirol bizitza zikloa hautaturiko hizkuntza ofizialean egin ahal izatea, bai kirol instalazio publikoen edo pribatuen erabiltzaile gisa, bai kirol federazio edo klub bateko bazkide gisa**. Orokorrean, ezin da euskarazko harremanik izan aipatu erakundeekin hainbat arlotan: agiriak hautaturiko hizkuntzan jaso ahal izatea, erakunde horietako web orrietan, batzar eta informaziorako bileretan edo prestakuntza bileretan (kirol titulazioak), curriculumaz kanpoko kirolean edota unibertsitate mailako kirolean.

Getxo marka

Getxo marka 2008ko urtarrilean aurkeztutako lankidetzako hitzarmen bat da. Getxo Kirolak udal erakunde autonomoak herriko futbol taldeekin kirol federatua eta Kirol Eskolak (600 ume ingururekin) garatze aldera sinatutako hitzarmenarena da. Getxoko hainbat futbol taldek sinatu zuten, zehazki, C.D. Getxo, C.D. Galea, Bizkerre FT eta S.D. Neguri. Futbol talde horien eta Udalaren artean "Getxo marka" izena duen proiektuaren barruan futbol federatua bultzatzea dute helburu, eta baita futboleko jokatu nahi duten Getxoko neska-mutikoei aukera bat emateko ere.

Hitzarmenean honela justifikatzen dute marka berriaren beharra:

Futbola behar bezala antolatzea izan da proiektuaren helburu nagusia, bai guretzat eta bai Udalarentzat berarentzat ere, **kirol hori gizaratean zeharo sustraitua eta hedatua dagoelako**; horrezaz gainera, kontuan hartu behar da futbol taldeak han-hemenka sakabanaturik daudela, eta baliabide gutxi eta hainbat arazo izan dituztela beti. Horrek, jakina, kirol horren kalitatea hobetzea eta kirolaren eta udalaren ezaugarri berriei egokitzea galarazi du.

Hitzarmenean **C.D. Getxo talde nagusi bezala jardun behar du** eta ginerako klub sinatzaileak menpekoak izango dira. Hala ere, klub guztiek euren egitura, nortasun juridikoa eta identitatea gordeko dute.

Horregatik, futbol federatuan C.D. Getxo talde nagusi bezala agertzen da. Eskola futbola ere, elkarte horretako langile/koordinatzaile batek kudeatzen du. Hori horrela, proiektu honetan ere, C.D. Getxo elkarteak garrantzi handiagoa dauka gainontzeko elkarteak baino.

Gaur egun, *Getxo markak*, futbolaz gain, hainbat kirol mota biltzen ditu bere baitan; besteak beste Getxo rugby taldea, Getxo Saski Baloia eta Getxo Arraun.

3.3. Getxoko kirol elkarten hizkuntza egoeraren diagnostikoa. Siadeco 2005

Getxoko Udalak, lehiaketa publiko bidez, Siadecori eskatu zion Getxon beren jarduna garatzen zuten kirol eragileen artean euskarak bizi duen egoera aztertzea, hizkuntza diagnostiko zehatza eginez. Horretarako, Getxon kirol esparruan jarduten duten 50 entitatek parte hartu dute, horietatik 43 kirol-elkarteak direlarik.

Kirol modalitatearik eskainiena futbola da, 13 dira futbola eskaintzen duten entitateak. Hauek dira bi entitatek edo gehiagok eskainitako kirol modalitateak:

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

	Guztira eskaintzen duten entitateak
futbola	13
Aretoko futbola	7
Euskal pilota	6
Atletismoa	6
Txirrindularitza	4
igeriketa	4
gimnasia	4
Urpeko jarduera	3
tenisa	3
Saski baloia	3
mendia	3
xakea	2
Paddel	2
hockeya	2
Herri kirolak	2
Esku baloia	2
arraunketa	2
Arku tiraketa	2
Aire kirolak	2

Iturria: SIADECO, 2005

Diagnostikoa egiteko parte hartu duten 50 entitate horiek **antolatzen dituzten jarduerak hartzaile kopuru handia** dute. Ia 18 mila pertsona dira era batean ala bestean jardueretan parte hartzen duten pertsonak.

Partaideen adinari dagokionez, partaide gazteak nabarmentzen dira, jarduera hauetako partaideen erdiek 24 urte edo gutxiago dituzte; 12 urtetik beherako haurren parte hartze maila altua da udal menpeko erakundeek eta enpresa/zerbitzu profesionalek antolatutako jardueretan; eta 13-24 urte bitartekoak enpresa/zerbitzu profesionalek eta kirol elkarteek antolatutakoetan nabarmentzen dira.

	Udal erakundeetan		Kirol elkarteetan		Enpresa/zerbitzu profesionaletan		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
12 urte edo gutxiago	701	26,8	1.389	14,3	1.620	29,0	3.710	20,7
13-24 urte bitartean	487	18,6	2.700	27,8	2.040	36,5	5.227	29,2
25-39 urte bitartean	991	37,9	3.645	37,6	1.715	30,7	6.351	35,5
40 urte edo gehiago	434	16,6	1.266	13,1	220	3,9	1.920	10,7
Ed/ee	0	0	700	7,2	0	0,0	700	3,9
GUZTIRA	2.613	100,0	9.700	100,0	5.595	100,0	17.908	100,0


Iturria: SIADECO, 2005

Egitasmoan parte hartu zuten kirol elkarteetako eragileen **artean euskararen ezagutza maila** baxua da zuzendaritza kideei dagokienez. Monitore/begiraleen artean ere, esan daiteke ehuneko handi batek ez dakiela euskaraz, % 26,3 hain zuzen. Aldiz, kirol elkarteetan lanean ari diren soldatapeko enplegatu euskaldunen ehunekoa % 70 da, hau da, zenbaki absolutuetan, lanean ari diren 40 pertsonetatik 28 ondo moldatzen direla euskaraz. Azpimarratzekoa da guztira kirol elkarte hauetan dauden soldatapeko enplegatuen erdia San Nikolas ikastolak kontratatutakoak direla; horrek esplikatu dezake neurri handi batean euskararen ezagutza maila altu hori.

	Zuzendaritza kideak		Bazkideak		Soldatapeko enplegatuak		Monitore / begiraleak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Euskaldunak	88	23,7	2.672	20,3	28	70,0	144	53,4
Ia euskaldunak	85	22,9	437	3,3	5	12,5	14	5,2
Erdaldunak	192	51,8	1.913	14,5	7	17,5	71	26,3
Ed/ee	6	1,6	8.150	61,9	0	0,0	41	15,2
GUZTIRA	371	100,0	13.172	100,0	40	100,0	270	100,0

Iturria: SIADECO, 2005

Entitateetako **irudi eta errotulazioan**, salbuespenak salbuespen, hiru eragiletatik bik inguruk euskaraz dituzte (euskaraz nagusiki edo elebitan, gaztelaniarekin batera) elementu gehienak. Web orria aldiz, gaztelania hutsez dute eragileen erdiek pasatxok (%53,8k):




Ez dute %100 ematen, "ed/ee" kategoria txertatu ez delako.

Iturria: SIADECO, 2005

Entitateko ahozko eta **idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera** dezente baxuagoa da, eta harremanak euskaraz (nagusiki edo ele bitan) garatzen dituzten entitateen ehunekoa ez da % 25era iristen. Halere, hemen ere salbuespenak badaude, eta "barne komunikaziorako idazkiak" eta "barne inprimaki/formularioak" euskaraz (nagusiki edo ele bietan) ditu kirol entitateen % 40 inguruk.

Aitzitik, ahozko erabilera formalean ("bazkide bileretan" eta "zuzendaritza taldeko bileretan") euskaraz egiten duten entitateen ehunekoa %13 - %16 artekoa da:

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012




Ez dute %100 ematen "ed/ee" kategoria txertatu ez delako.

Iturria: SIADECO, 2005

Entitateko **ahozko eta idatzizko kanpo harremanetan**, euskararen erabilera barne harremanetan baino zer edo zer altuagoa da, baina irudia eta errotulazioko elementuetan baino baxuagoa. Honela, elementu desberdinen artean, euskararen erabilera maila % 30 inguruan kokatzen da ahozko kanpo harremanetako elementuetan, eta % 40 - % 50 inguru idatzizko kanpo harremanetako elementuetan.

Dena den, kontuan izan behar da kirol entitate hauetako gehienek grafikoan azaltzen diren erakundeekiko dituzten idatzizko harremanen maiztasuna ez dela handia izango, eta hemen azaltzen den hainbat harreman mota oso noizbehinka emango dela:

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012



Ez dute %100 ematen "ed/ee" kategoria txertatu ez delako.

Iturria: SIADECO, 2005

3.4. Getxoko kirol elkarteetan euskararen presentzia areagotzeko egitasmoa: **GEHItu kirola**

3.4.1. Egitasmoaren deskribapena

GEHItu kirola egitasmoa Getxoko Udalak herriko jendarte eremu ezberdinetan euskara normalizatzeko martxan daukan GEHI (Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena) proiektu zabalaren adarretako bat da. Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak dinamizatzen du egitasmoa. 2009ko sinadura ekitaldi publikoan egitasmoan parte hartzen duten Getxoko 32 kirol elkartek euskara sustatzeko hitzarmenak izenpetu zituzten, hitzarmen mailakatuak. Elkarteen errealitatea eta Getxoko hizkuntza-egoera abiapuntutzat hartuta, era progresiboan euskarazko kirol eskaintza sustatu eta euskara, elkarteen lan hizkuntza bilakatzea du helburu.

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

HITZARMENA	EDUKIA	SINATZAILE KOPURUA
"A" HITZARMENA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Entitatean euskararen aldeko sentiberatze lana egitea. ▪ Entitatearen ahozko eta idatzizko elementu publikoetan, euskara eta gaztelaniaren presentzia gutxienez parekoa izatea: <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko elementuak: megafonia, erantzungailua, musika... - Idatzizko elementuak: errotulazioa eta irudi korporatiboa, kanpora begirako kartelak eta oharrak... 	16
"B" HITZARMENA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ "A" hitzarmeneko konpromisoak betetzea. ▪ Entitatearen oinarrizko testu idatzietan (aktak, gutunak, barne oharrak, etab.) euskara eta gaztelaniaren presentzia gutxienez parekoa izatea. ▪ Entitateko begirale/entrenatzaileak euskalduntzeko edota euskaraz trebatzeko ahaleginak egitea. 	11
"C" HITZARMENA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ "B" hitzarmeneko konpromisoak betetzea. ▪ Entitateko begirale/entrenatzaile eta partaide euskaldunen arteko ahozko eta idatzizko harremanetan, euskararen erabilera areagotzeko urratsak ematea. ▪ Entitateak antolatzen dituen kirol jardueretan (entrenamenduak, ikastaroak...), ahal dela, talde euskaldunak osatzea. 	9
EZ DUTE SINATU		7

Guztira, 32 kirol elkartek sinatu zuten hitzarmenen bat. Getxoko Udalak kirol elkarte horiei hainbat baliabide eskaintzen dizkie euskararen erabilera areagotzeko:

• Aholkularitza ematea entitatearen ekintzetan euskararen ahozko erabilera areagotzeko begira.
• Hizkuntza normalkuntzarekin zerikusia duen informazio interesgarria (material didaktikoak euskaraz, ekintzak euskaraz, etab.) aldiro bidaltzea.
• Begirale/entrenatzaile nahiz beste mota bateko pertsonalarentzako dirulaguntzak ematea euskara ikasteko.
• Materialak eta testuak euskaratzeko laguntza tekniko eta itzulpen zerbitzua doan.
• Jendaurreko ekintzetarako aurkezle elebidunak eskaintzea
• Euskaraz egindako prestakuntza ikastaroetara joateko dirulaguntzak ematea
• Entitatearen irudia (zigilua, gutun-azalak...) euskaraz edo elebidunean jartzeko dirulaguntzak ematea
• Entitatearekin batera, hitzarmen honen jarraipena egitea

Getxo marka Udaleko Kultura eta Kirol arloak bultzatutako hitzarmen bat izanda ez da *GEHItu* kirolaren barruan sartzen. Elkarrekin soilik sinatu dezakete GEHI hitzarmena, enpresek eta udal menpeko erakundeek hitzarmenetik kanpo geratzen dira.

Getxo markaren barruan dauden futbol elkarteek ordea, hitzarmena sinatu egin zuten:

HITZARMEN MOTA	FUTBOL ELKARTEA
"A" HITZARMENA	C.D. GETXO C.D. GALEA ITURGITXI
"B" HITZARMENA	BIZKERRE

3.4.2. Getxo markako elkarte bakoitzaren deskribapena

CLUB DEPORTIVO GETXO

1927ko ekainaren 9an sortu zen eta gaur egun, gutxi gorabehera, 350 bazkide ditu. Partidetarako eta entrenamenduetarako Fadura eta Bolueko udal futbol zelaiak erabiltzen ditu. Zuzendaritza Batzordea 13 pertsonaz osatuta dago eta hauek dira bakoitzak betetzen dituen funtzioak:

KARGUA	PERTSONA KOPURUA
Presidentea	1
Presidente ordea	1
idazkaria	1
Kirol kudeaketa batzordea	3
Web arduraduna	1
Publizitatea eta merchandising	1
Mantenu arduraduna	1
Erosketa arduraduna	1
Komunikazio arduraduna	1
Ekipamenduen garbiketa arduraduna	1
Taberna arduraduna	1

Zuzendaritza batzorde horrek 4 aholkulari ditu.

C.D. Getxo taldeak 2011-2012 denboraldian:

Senior: 23 jokalaria

Gazteak A (juvenil): 21 jokalaria

Gazteak B: 18 jokalaria

Kadete: 20 jokalaria

Getxo marka taldeak:

Haur-kategoria

Alebinak

Benjaminak

Multikirola eskola

Siadecok egindako diagnostikoan, C.D. Getxo taldeari galdetu zitzaion eurek antolatutako jardueretan zein zen euren partaideen euskararen ezagutza maila. Beheko datuen arabera, C.D. Getxok ez daki parte hartzaileak euskaldunak ala erdaldunak diren:

ENTITATEA	Partaide euskaldunak	Partaide euskaldunen %	Partaide erdaldunak	Ez dakite euskaldunak diren	GUZTIRA PARTAIDEAK
C.D. GETXO	0	% 0,0	0	350	350

Iturria: SIADECO, 2005

Adinaren banaketari dagokionez, hau da partaideen adina, 24 urtetik beherakoek duten pisu erlatiboaren arabera:

ENTITATEA	12 urtetik behera	12-24 urte	24 urtetik behera %	25-39 urte	40 urtetik gora	Ez du adina ezagutzen	GUZTIRA
C.D. GETXO	50	100	42,9	200	0	--	350

Iturria: SIADECO, 2005

Jarduera desberdinetan parte hartzen duten ikasleak (unibertsitatez beherako ikasleak) doazen ikastetxeetara:

ENTITATEA	Partaide haur eta gazteen kopura		Ikastetxea				
	12 < urte	13-24 urte	Andra Mari ikastetxea	Azkorri ikastetxea	Getxo III-Aixerrota	San Nikolas ikastola	Getxotik kanpo
C.D. GETXO	50	100	% 20	% 10	% 20	% 20	% 30

Iturria: SIADECO, 2005

Andra Mari eta Getxo III-Aixerrota ikastetxeek B eta D ereduak eskaintzen dituzte; San Nikolas ikastolak D eredu; eta Azkorri ikastetxeak A eredu. C.D. Getxo taldean parte hartzen duten ume/gazte gehienak euskaldunak dira.

CLUB DEPORTIVO GALEA:

1971ko azaroan sortu zen eta gaur egun, gutxi gorabehera, 225 bazkide ditu. Partidetarako eta entrenamenduetarako *Azkorri* futbol zelaia erabiltzen dute, zelai hori eurek erositakoa da, jokalarien eta hainbat kolaboratzaileen artean. Zuzendaritza Batzordea 19 pertsonaz osatuta dago eta hauek dira bakoitzak betetzen dituen funtzioak:

KARGUA	PERTSONA KOPURUA
Presidentea	1
Ohorezko presidentea	1
Presidente ordea	1
idazkaria	1
Azkorri presidentea	1
Azkorri presidente ordea	1
bokala	13

C.D. Galeak 2011-2012 denboraldian:

Lehentasunezkoa (*preferente*): ~23 jokalaria

Gazteak A (*juvenil*): ~20 jokalaria

Gazteak B: ~15 jokalaria

Kadete A: ~18 jokalaria

Kadete B: ~17 jokalaria

Erregionala: ~25 jokalaria

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

Siadecok egindako diagnostikoan, C.D. Galeak antolatzen dituen jardueretan euren partaideen euskararen ezagutza maila % 55,6 da, hau da, 180 partaideetatik 100 euskaldunak dira:

ENTITATEA	Partaide euskaldunak	Partaide euskaldunen %	Partaide erdaldunak	Ez dakite euskaldunak diren	GUZTIRA PARTAIDEAK
C.D. GALEA	100	% 55,6	80	--	180

Iturria: SIADECO, 2005

Adinaren banaketari dagokionez, hau da partaideen adina, 24 urtetik beherakoek duten pisu erlatiboaren arabera:

ENTITATEA	12 urtetik behera	12-24 urte	24 urtetik behera %	25-39 urte	40 urtetik gora	Ez du adina ezagutzen	GUZTIRA
C.D. GALEA	0	140	77,8	40	0	--	180

Iturria: SIADECO, 2005

Jarduera desberdinetan parte hartzen duten ikasleak (unibertsitatez beherako ikasleak) doazen ikastetxeetara:

ENTITATEA	Partaide haur eta gazteen kopura		Ikastetxea			
	12 < urte	13-24 urte				San Nikolas ikastola
C.D. GALEA	0	140				Gehienak

Iturria: SIADECO, 2005

San Nikolas ikastolak D eredu bakarrak eskaintzen du eta bertakoak dira kirol elkarte honetan parte hartzen duten 24 urtetik beherako gazte gehienak. Beraz, C.D. Galean parte hartzen duten ume/gazte gehienak euskaldunak dira.

ITURGITXI FUTBOL CLUB – S.D. NEGURI

1984ko uztailaren 27an sortu zen eta gaur egun oso bazkide gutxi ditu. Partidetarako eta entrenamenduetarako *Bolue* futbol zelaia erabiltzen dute, Fadura kiroldegiaren atzean. Zuzendaritza Batzordea 6 pertsonaz osatuta dago eta hauek dira bakoitzak betetzen dituen funtzioak:

KARGUA	PERTSONA KOPURUA
Presidentea	1
Presidente ordea	1
Diruzaina	1
bokala	3

Iturgitxik 2011-2012 denboraldian:

Bigarren kadete A

Bigarren Kadete B

Bigarren Gazteak (*juvenil*)

Bigarren Lurraldekoa (*territorial*)

Hirugarren Lurraldekoa

Siadecok egindako diagnostikoan, Iturgitxik antolatzen dituen jardueretan euren partaideen euskararen ezagutza maila % 65 da, hau da, 290 partaideetatik 190 euskaldunak dira:

ENTITATEA	Partaide euskaldunak	Partaide euskaldunen %	Partaide erdaldunak	Ez dakite euskaldunak diren	GUZTIRA PARTAIDEAK
ITURGITXI	190	65,5	100	--	290

Iturria: SIADECO, 2005

Adinaren banaketari dagokionez, hau da partaideen adina, 24 urtetik beherakoek duten pisu erlatiboaren arabera:

ENTITATEA	12 urtetik behera	12-24 urte	24 urtetik behera %	25-39 urte	40 urtetik gora	Ez du adina ezagutzen	GUZTIRA
ITURGITXI	50	50	% 69,0	45	0	--	145

Iturria: SIADECO, 2005

Jarduera desberdinetan parte hartzen duten ikasleak (unibertsitatez beherako ikasleak) doazen ikastetxeetara:

Getxo marka-futbola euskalduntzeko plangintza
HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

ENTITATEA	Partaide haur eta gazteen kopura		Ikastetxea				
	12 < urte	13-24 urte	Andra Mari ikastetxea	Azkorri ikastetxea	San Nikolas ikastola	Zubileta eskola	Getxotik kanpo
ITURGITXI	44	57	X	X	X	X	X

Iturria: SIADECO, 2005

Iturriaren arabera, Iturgitxik ez daki eskola bakoitzetik datorren ume kopurua, baina eskolen hizkuntza-ereduak begiratzen baditugu, ikus daiteke 5 ikastetxetatik 3k D eredia eskaintzen dutela, batek B eredia eta bik A eredia, azken horretako 1ek soilik 11 urtetik aurrera eskaintzen du A eredia. Beraz, ehuneko altu batek jakingo du euskaraz ume/gazte horien artean.

BIZKERRE FUTBOL TALDEA

1980. urtean sortu zen eta gaur egun, gutxi gorabehera, 100 bazkide ditu. Partidetarako eta entrenamenduetarako *Bolue* futbol zelaia erabiltzen dute, Fadura kiroldegia-aren atzean. Zuzendaritza Batzordea 9 pertsonaz osatuta dago eta hauek dira bakoitzak betetzen dituen funtzioak:

KARGUA	PERTSONA KOPURUA
Presidentea	1
Presidente ordea	1
idazkaria	1
Idazkari ordea	1
bokala	5

Getxo markan Bizkerre-mutilak bakarrik

Bizkerrek 2011-2012 denboraldian:

Mutilak:

Kadete: 17 jokalaria

Kadete B: 20 jokalaria

Gazteak (juvenil): 23 jokalaria

Lurraldekoa (territorial): 24 jokalaria

Neskek, *Bizkeneskak* izena erabiltzen dute:

Alebinak: 14 jokalaria

Haur-kategoria Bizkeneskak: 12 jokalaria

Haur-kategoria Bizkerre: 10 jokalaria

Kadete-gazteak A: 20 jokalaria

Kadete-gazteak B: 17 jokalaria

Lurraldekoa (territorial): 20 jokalaria

Siadecok egindako diagnostikoan, Bizkerre Futbol Taldea banatuta agertzen da. Alde batetik, *Bizkeneskak* daude eta bestetik izena mantendu duten mutilen futbola, *Bizkerre Futbol Taldea*. *Bizkeneskak* taldekoek antolatzen dituzten jardueretan euren partaideen euskararen ezagutza maila % 100 da. Aldiz, *Bizkerre* taldekoek antolatutako jardueretan partaideen euskararen ezagutza maila ez da % 1era ere iristen:

ENTITATEA	Partaide euskaldunak	Partaide euskaldunen %	Partaide erdaldunak	Ez dakite euskaldunak diren	GUZTIRA PARTAIDEAK
BIZKENESKAK	95	% 100	0	--	95
BIZKERRE	1	% 0,5	181	--	182

Iturria: SIADECO, 2005

Adinaren banaketari dagokionez, hau da partaideen adina, 24 urtetik beherakoek duten pisu erlatiboaren arabera:

ENTITATEA	12 urtetik behera	12-24 urte	24 urtetik behera %	25-39 urte	40 urtetik gora	Ez du adina ezagutzen	GUZTIRA
BIZKENESKAK	50	38	92,6	7	0	--	95
BIZKERRE	75	83	86,8	24	0	--	182

Iturria: SIADECO, 2005

Jarduera desberdinetan parte hartzen duten ikasleak (unibertsitatez beherako ikasleak) doazen ikastetxeetara:

ENTITATEA	Partaide haur eta gazteen kopura		Ikastetxea			
	12 < urte	13-24 urte		Andra Mari ikastetxea		Zubileta ikastetxea
BIZKENESKAK	50	38		% 40		% 60
BIZKERRE	75	83		% 40		% 60

Iturria: SIADECO, 2005

Andra Mari ikastetxeak B eta D ereduak eskaintzen ditu eta Zubileta eskolak A eta D ereduak ditu, baina A ereduak soilik Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera eskaintzen da, hau da, 11 urtetik aurrera. Beraz, nahiz eta % 60 Zubileta ikastetxekoa izan, Bizkerren parte hartzen duten ume/gazte gehienak euskaldunak direla esan daiteke.

3.4.3. Getxo markan sartzeko irizpideak

Kirol elkarteek *Getxo markarekin* bat egitea borondatezko ekintza da. Ekintza horrekin elkarteek, kirol eremuan, lagundu egiten dute Getxoko ordezkariak sustatzen eta garatzen.

Hitzarmen horrekin, sinatzaileek, *Getxo markaren* garapenari hasiera eman nahi diote eta garapen horretan lagundu, bai kirol federatuan, bai Udaleko Kirol Eskolaren ezarpenean, baita eskola kirolaren sustapenean ere.

Euskarari dagokionez, hitzarmenaren zirriborroan aipu bakarra agertzen da, non esaten den kirol-elkarteek publiko egiten dituzten agiri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz joan behar diren. *Getxo marka hitzarmena futbola* zirriborroan, 13.artikuluari:

Lehiaketako kirol federatuan, euren jardueraren garapenean, hitzarmen honetako Lehenengo atalean behartutako klubak **hurrengo betebeharrak eta printzipioetara moldatu behar dira:**

- a) Udalerriko kirol irudia, eta zehazki, Getxo markaren irudia sustatzea eta errespetatzea euren bazkide eta kirolarien artean.
- b) Kirol jardueretan printzipio hauek jarraitzea: parte hartzea, lehiaketa garbia eta aurkariarekiko errespetua.
- c) Kirol-instalazioak zaintzea eta mantenuan laguntzea, eta bertan dauden langileak errespetuz tratatzea.
- d) Kirol ekintza eraginkortasunez aurrera eramateko bitarteko materialak eta pertsonalak edukitzea.
- e) Kudeaketa gardena eramatea.
- f) Jardueren garapenerako beharrezkoak diren bitartekoak eta finantziarioak lortzeko jarduerak egokiren bat garatzea.
- g) Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna jardueren bitartez sustatzea eta garatzea, baita edozein diskriminazio mota ekiditea ere.
- h) Adin gabekoen eskubideak errespetatzea eta babestea.
- i) **Komunikazioa eta agiri publikoetan euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzea.**

Hitzarmen ofizialean, ordea, bederatzi puntu horiek ez dira agertzen; horrek esan nahi du, euskararen erabilera komunikazioa eta agiri publikoetan ez dela aplikatu edo, gainontzeko zortzi puntuekin batera, jakintzat eman dela hitzarmen ofizialean ipini gabe.

Beraz, *Getxo marka* hitzarmenean ez da inongo hizkuntza irizpiderik ageri.

3.4.4. Egitasmoaren orain arteko emaitzak

Orain arte *GEHItu kirola* egitasmoan lan handia egin da, baina elkarreentzat sortutako baliabideak (hiztegiak, diru-laguntzak, zerbitzuak...) ez dira behar bezala aprobetxatu.

Futboleko egin da lanik handiena, besteak beste:

Sentsibilizazio saioen barruan, Ttakun elkarrearekin *entrenatzaileek asko egin dezakete* saioa egin da eta baita *Itzarri aholkularitza* zerbitzuarekin ere. Azken hori Koikili Lertxundik, Athleticeko jokalaria, daukan enpresa bat da; sentsibilizazio saioa futboleko jokalariekin eta entrenatzaileekin egiten dute, Koikilik ematen ditu entrenamenduak euskaraz. Arrakastatsuak izan ohi dira saio horiek asistentzia aldetik, baina entrenamenduak euskaraz egiteko baliabideak jasotzeko apur bat hanka-motz geratzen da.

Entrenatzaileek asko egin dezakete saioan kirol mota guztietako entrenatzaileek parte hartzen zuten hasieran, baina gero kirol motaren arabera hasi ziren banatzen. Futbol elkarreekin egin den azken saioak ez du arrakasta handirik izan. Egon ziren entrenatzaileek balorazio positiboa egin zuten, baina gainerako entrenatzaileak ez zeudenez motibatuta saioetan parte hartzeko, askok kale egin zuten.

Futboleko **hiztegi teknikoa** egin da eta futboleko entrenatzaileei banatu zaie. Gaztelania-euskara hiztegi teknikoa.

8 eta 12 urte bitarteko umeen **entrenamenduak euskaraz egiteko diru-laguntzak** banatzen hasi ziren orain dela hiru urte. Diru-laguntza horiek Getxoko euskaraz zerbitzuak banatzen ditu eta euskaraz entrenatzen duen talde bakoitzeko diru kopuru bat jasotzen du kirol elkarrekin. Diru-laguntza jasotzen duten entrenamenduei jarraipena egiten zaie, eta oro har, emaitza ez da oso positiboa izaten. Dena den, Udalak oraindik ez du elkarre bat ere ez behartu diru-laguntza itzultzeraz.

aukeratuzeurea.biz webgunea egin zuten Bizkaiko 22 udalerrik, Getxo tartean. Web orri horretan, besteak beste, kirolari famatuek egindako posterrak agertzen dira, tartean futbolekoa, baita luzamenduak egiteko beharrezkoa den hiztegi teknikoaren liburuxka ere. Material hori guztia kirol elkarrekin paperean ere eman zitzaizkien, baina ez zaio horri guztiari etekin handirik atera.

Gaur egun, futbol entrenamenduen taktika eta teknika lantzeko euskarazko fitxak egiten ari dira eta gero material hori zelan erabili behar den erakusteko 2 urteko hitzarmen bat sinatu du Udalak *kimet sport* enpresarekin.

Orokorrean, lehen esan bezala, lan handia egin da hitzarmen honen barruan, baina sortu diren baliabideak, agian, ez dira ahal bezainbeste aprobetxatu.

3.5. Une honetan antzematen diren hutsuneak eta premiak

Hutsuneak kirol elkarteei dagokienez:

Gaur egun, *GEHitu kirola* hitzarmenaren barruan dauden elkarteak bakoitza bere hitzarmenean gelditu da, ez dute asmorik hurrengo hitzarmenera pasatzeko. Adibidez, A hitzarmena sinatuta dutenek (C.D. Galea, C.D. Getxo eta Iturgitxi) ez daukate asmorik A hitzarmeneko gauzak bete eta hurrengo hitzarmena, B hitzarmena, izenpetzeko. Are gehiago, hiru urte pasatu dira hitzarmena izenpetu zutenik eta oraindik ez dute ezta minimo batzuk ere bete, besteak beste webgunea euskaratzea, nahiz eta hori egiteko baliabideak udalak berak eskaintzen dituen.

Ez dago hizkuntza irizpiderik begiraleak / entrenatzaileak kontratatzeke. Umeekin egoten diren entrenatzaileak kontratatzeke ere, ez da kontuan hartzen euskaldunak diren, nahiz eta ume gehienak euskaldunak izan. Gerta daiteke entrenatzaileak euskaraz jakitea, baina entrenamendua gaztelaniaz egitea (ez delako eroso sentitzen euskaraz hitz egiten, entrenamendua euskaraz emateko baliabiderik jaso ez duelako...).

Premiak, kirol elkarteei dagokienez:

Izenpetuta daukaten hitzarmena betetzea. *Getxo markaren* barruan dauden lau elkartetik hiruk A hitzarmena daukate sinatuta, minimoen hitzarmena (batez ere itzulpenak egin beharko lituzkete eta hori egiteko baliabideak udalak eskaintzen ditu). *Getxo markaren* ordezkari bezala, lehentasunezkoztat joko nuke hitzarmen hori betetzea eta hurrengo hitzarmena izenpetzea, B hitzarmena. Azken hitzarmen hori sinatuta duen klub bakarra Bizkerre da. A hitzarmena kanpora begirako lana den bitartean, B hitzarmena, esan daiteke, barrura begirakoa dela.

Entrenamenduak euskaraz egiteko beharrezkoa da kirol elkarteek hizkuntza irizpideak ezartzea. Ez da bakarrik jakitea entrenatzaileak euskaldunak diren ala ez, baizik eta gai diren entrenamenduak euskaraz egiteko edo ez. Horretarako, entrenatzaile euskaldunen lan-poltsa egitea premiazkoa dela iruditzen zait, jaso duten hezkuntza formazioaz gain, euskara maila ere galdetzea, hau da, euskarazko titulurik duten, euskaldun zaharrak diren (baina titulurik ez), euskaldun alfabetatuak diren...

Hutsuneak *Getxo markari* dagokionez:

Hizkuntzari dagokionez, *Getxo markak* hutsune nabarmenak ditu ez baitauka hizkuntza irizpiderik. Udaleko Kultura eta Kirol arloak sustatutako egitasmo bat denez, ezinbestean hartu behar ditu aintzat hizkuntza irizpideak.

Premia *Getxo markari* dagokionez:

Hizkuntza irizpideak markatzea hitzarmenaren barruan eta erreferentzia berezia egitea eskola kirolari. Hau da, umeei parte hartzen duten kirol taldeetan behintzat, euskararen presentzia bermatuta egotea.

Are gehiago, orain dela urte bete inguru, guraso batzuek sinadurak bildu zituzten Getxoko Udalarari eta baita kirol-elkarteei honako hau exijituz:

1. Getxoko kirol-ekintza guztiak euskaraz ere eskaintzea.
2. Getxoko kirol-ekintzen entrenamenduak euskaraz ere egotea.
3. Entrenatzaileak euskaldunak izatea kirol-ekintzen garapenerako.

3.6. Planteatzen dugun plan estrategikorako oinarriak

Futboleko kirol elkarteek hitzarmena sinatu zuten bere garaian, baina hiru urte pasa dira eta oraindik asko daukate egiteke dagokien hitzarmena betetzeko. Kirol elkarteei esfortzua egiteko eskatzen zaie herriko hizkuntza normalizazioaren bidean aurrerapauso bat emateko. Lanik handiena, hitzarmena sinatzea, eginda dago, baina hori betetzeko bitartekoak eta ekintzak diseinatzea funtsezkoa eta beharrezkoa da lana bere osotasunean gauzatu dadin. Horiek gabe, ezinezkoa egingo zaie kirol elkarteei hitzarmenak betetzea; batez ere, kontuan hartzen badugu dituzten baliabide

ekonomikoak mugatuak direla. Horregatik, bultzada eman behar zaie kirol elkarteei diseinatutako baliabideak erabil ditzaten, bestela ez da aurrerapausorik egongo eta kirol elkarteak dauden bezala, hizkuntza irizpideak ezarri barik, geratuko dira.

Getxo markari dagokionez, orain arte ez zaio inongo hizkuntza irizpiderik exijitu; baina Udaleko Kirol arloak bultzatutako egitasmoa denez, berez eduki beharko lituzke hizkuntza irizpideak ezarrita. Udaleko euskara zerbitzuak kirol elkarteei exijitzen dien bezala hitzarmenen bat sinatzea, *Getxo marka* udaleko parte den neurrian, ezinbestekoa da baldintza horiek ere betetzea. Hori egin ezean, epe luzera, Udalaren kontra etorriko litzateke; hau da, Udalak ezin die kirol elkarteei eskatu Udalak berak betetzen ez dituen baldintza eta hizkuntza irizpide batzuk.

Horretarako, bai kirol elkarteetan, bai *Getxo markan*, epe luzerako helburuak markatu behar dira eta urte batean egingarriak izango diren ekintzen bitartez, kudeaketa plana egin. Planaren helburu nagusia kirol elkarteak eta *Getxo marka* euskalduntzea bada ere, hori epe luzerako helburua denez; premiazko helburuak, helburu zehatzak, ezarriko dira lehenbizi.

Proposatzen den plan estrategikoa lau urtetan egin beharrekoa da eta hurrengo arloetan eragitea du helburu: sentsibilizazioan, erabileran (ahoz eta idatziz) eta euskalduntzea-prestakuntzan. Arlo horietan eragiteko, jarraian helburuak eta adierazleak proposatuko ditugu (helburuak *Getxo markako* sustatzaileak –teknikariak-, euskara zerbitzuko teknikariak eta GEHItu kirolako sustatzaileak adostu beharko lituzkete eta jarraipena egin). Adierazleek aukera emango digute helburuak zenbateraino bete diren neurtzeko. Plan estrategikoa indarrean ipintzeko hasierako egoeraren ebaluaketa egin beharko da, behin datu horiek edukita, kudeaketa plana martxan jarri eta urte baterako helburuak ere noraino bete nahi/ahal dugun zehaztuko dugu. Urte hori pasata, berriz, egoeraren ebaluaketa egin eta neurtuko dugu noraino bete ditugun hasieran markatutako helburu horiek.

1. Sentsibilizazioan:

Helburua: kirol elkarteetako partaideak, eta batez ere, entrenatzaileak euskararen sustapenean sentsibilizatzea. *Getxo markako* sustatzailea ere, honetan parte hartzea.

Adierazleak:

- Antolatu diren sentsibilizazio ikastaro kopurua
- Zenbat ikastaro izan diren euskaraz eta zenbat gaztelaniaz
- Sentsibilizazio ikastaroen partaidetza kopurua
- Ikastaroetan zenbat erdaldun eta zenbat euskaldun egon diren
- Zenbat bazkide / zuzendaritzako kide / entrenatzailek parte hartu duten

2. Erabileran, ahoz:

Helburua: entrenatzaileek entrenamenduak euskaraz eman dezaten trebatzea.

Adierazleak:

- Zenbat entrenatzailea euskaldun / erdaldun dauden
- Ikasturtean egon den entrenamendu kopurua, horietatik zenbat izan diren euskaraz
- Entrenamenduak euskaraz jaso dituzten pertsonen adina
- Antolatu diren trebakuntza saioen kopurua
- Zenbat entrenatzailek parte hartu duten trebakuntza saioetan

Helburua: kirol elkarteetako ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzea. *Getxo markako* sustatzailearekin ere neurtu daiteke.

Adierazleak:

- Herritarrak harremanetan jartzen direnean erabiltzen duten hizkuntza %
- Herriko beste kirol elkarte bat harremanetan jartzen denean erabiltzen duten hizkuntza %
- Udaleko langileren bat jartzen denean harremanetan erabiltzen duten hizkuntza %
- Telefonoan harrera egiterakoan euskara erabiltzen da %
- Jendaurreko ekitaldietan euskara erabiltzen da %

- Bulegoko erantzungailuan erabiltzen duten hizkuntza %

Helburua: kirol elkarteetako ahozko barne harremanetan euskararen erabilera areagotzea. *Getxo markako* sustatzailearekin ere neurtu daiteke.

Adierazleak:

- Telefonoan harrera egiterako euskara erabiltzen da %
- Telefonoan elkarrizketa euskaraz egiten da %
- Elkarte barruko bileretan euskara erabiltzen da %
- Elkarteko harreman informaletan euskara erabiltzen da %

3. Erabileran, idatziz:

Helburua: Kirol elkarteetan, idatzizko kanpo harremanetan, euskararen erabilera gehitu. *Getxo markako* sustatzailearekin ere neurtu daiteke.

Adierazleak:

- Herritarrekiko idatzizko harremanetan igorritako komunikazio hizkuntza %
- Euskaraz sortutako komunikazioak %
- Gaztelanitik euskarara egindako itzulpenak %

Helburua: idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.

Adierazleak:

- Elkarteko idazki ofizialetan, igorritako komunikazioen hizkuntza %
- Elkarte barruko idazki ez-ofizialetan, igorritako komunikazioen hizkuntza %

Helburua: kirol entitateen irudian eta errotulazioan euskararen presentzia handitzea.

Adierazleak:

- Bazkide txartelean erabiltzen duten hizkuntza: euskara, gaztelania, ele biak
- Web orrian erabiltzen duten hizkuntza: euskara, gaztelania, ele biak
- Entitatearen izenean erabiltzen duten hizkuntza: euskara, gaztelania, ele biak
- Entitatearen zigiluan agertzen den hizkuntza: euskara, gaztelania, ele biak

4. Euskalduntzea-prestakuntzan:

Helburua: euskararen ezagutza handitu kirol entitateetako partaide eta entrenatzaileen artean. *Getxo markako* sustatzailearekin ere, neurtu daiteke.

Adierazleak:

- Euskaltegira doan ikasle kopurua kirol entitateetan
- Ikasleen artean zenbat diren erdaldun eta zenbat ia euskaldunak
- Kirol entitate bateko entrenatzaile izateagatik jasotzen duen diru-laguntza
- Jaso dituzten sentsibilizazio edo motibazio saioak

Helburua: entrenatzaile euskaldun edo ia euskaldunei euskaraz entrenatzeko trebakuntza-saio bereziak ematea eta dagoeneko sortuta dagoen materiala erabiltzera motibatzea

Adierazleak:

- Antolatu diren trebakuntza saio kopurua
- Parte hartu duten entrenatzaile euskaldun eta ia euskaldunen kopurua
- Entrenamenduak euskaraz egin ahal izateko dagoen materiala ezagutzera eman da %

Getxo markari dagokionez:

Helburua: Udal barruko entitate bezala, hizkuntza irizpideak markatzea euskararen erabilera gehituz. *GEHItu kirola* hitzarmena sinatu behar izatea *Getxo markako* partaide izateko.

Adierazleak:

- *Getxo markaren* barruan dauden entitate kopurua
- Horietatik zenbatek daukate *GEHItu kirola* hitzarmena sinatuta
- Zenbatek daukate: A hitzarmena, B hitzarmena, C hitzarmena
- Hitzarmenak betetzeko aurrerapausoak ematen dituzten kirol elkarteak %
- Dagokion hitzarmena bete eta hurrengoa sinatu duen elkarte kopurua

4. Proiektuaren erreferentziak

4.1. Esku-hartzearen diseinuan kontuan hartu ditugun erreferentziak edota ereduak.

Kirola euskaraz egin ahal izatea Udal askoren erronka dela ikusi dut:

Gipuzkoako Foru Aldundiak www.kirolaeuskaraz.net webgunea sortu zuen 2004an. Orri horretan hainbat baliabide agertzen dira kirola euskaraz egin ahal izateko, adibidez, fitxa didaktikoak, online hiztegiak, ikastaroak, etab. Horretaz gain, entrenatzaile eta esatarien lan-poltsa ere badaukate.

Nekane Jauregik, 2007ko ekainean, Soziolinguistika BAT aldizkarian idatzi zuen *Eskola Kirola Gipuzkoan* monografikoa: <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/3442>

Debagoieneko eta Debabarreneko mankomunitateek elkarlanean abiatutako *Kirola euskaraz* programa, kirolean euskararen erabilera sustatzeko. Hainbat dokumentu publikatu dituzte interneten, besteak beste:

Herriko jendeari komunikatzeko kiroldegian egongo diren hizkuntza irizpideak: <http://www.bergara.net/Kirola/kirolaeuskaraz/kiroldegieuskara1.pdf>

Eskola kirolaren onurak gurasoei azaldu eta egongo diren hizkuntza irizpideak azaltzeko triptikoa: <http://www.bergara.net/Kirola/kirolaeuskaraz/gurasoendako.pdf>

Hori guztia aurrera eramateko dituzten baliabideak euren webgunean ere ikus daitezke: <http://www.debagoiena.com/Kirola-Kultura-Aisia/Kirola/Euskaraz>

4.2. Diseinuaren ezaugarri nagusiak

Lau urterako plan estrategikoa zehaztu ondoren, urteko kudeaketa plana egin beharko dugu. Urte batean egingarriak diren helburuak zehaztu eta horiek bete ahal izateko jarduera eta ekintzen planteamendua egin.

5. Proiektuaren diseinu metodologikoa

Urte baterako kudeaketa planaren proposamena egingo dugu. Helburu bakoitza zein arlotan eragiten duen zehaztuko dugu lehenbizi; helburuak urte batean bete ahal izateko ekintzak zehaztu eta horiek noraino bete diren neurtzeko adierazleak sortuko ditugu.

Kudeaketa plana garatzeko, kirol entitateek baliabide hauek izango dituzte eskura:

Aholkularitza zerbitzua: *GEHItu kirola* egitasmoko sustatzailea.

Itzulpen zerbitzua: udalaren bitartez gehi@getxo.net helbide elektronikoan

Trebatze saioak eta laguntza pertsonalizatua

1. Sentsibilizazioa	
1.1.	kirol elkarteetako partaideak, eta batez ere, entrenatzaileak euskararen sustapenean sentsibilizatzea. <i>Getxo markako</i> sustatzailea ere, honetan parte hartzea.
<i>Ekintzak</i>	Sentsibilizazio saioak antolatu kirol elkarteetako partaide eta entrenatzaileentzat kudeaketa planean inplikatzeko. Partaideen hizkuntza jarrerak aztertu eta horren arabera saioak prestatu Arduradun politikoak eta teknikariak saio hauetan ere inplikatu

2. Erabilera, ahoz	
2.1.	entrenatzaileek entrenamenduak euskaraz eman dezaten trebatzea.
<i>Ekintzak</i>	Entrenamenduetarako hizkuntza irizpideak ezarri Sortuta dagoen materialarekin trebakuntza saioak antolatu edo dagokionean, material berria sortzea Euskaraz egiten diren entrenamenduak diruz laguntzea
2.2.	kirol elkarteetako ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzea. <i>Getxo markako</i> sustatzailearekin ere neurtu daiteke.

<i>Ekintzak</i>	Hizkuntza irizpideak zehaztu eta horiek estatutuetan blindatu Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu (telefonoz, aurrez aurre...) Adierazgarriak egin herritarrei ezagutzera emateko
2.3.	kirol elkarteetako ahozko barne harremanetan euskararen erabilera areagotzea. <i>Getxo markako</i> sustatzailearekin ere neurtu daiteke.
<i>Ekintzak</i>	Hizkuntza irizpideak zehaztu eta horiek betetzen direla ziurtatu Entrenatzaile edo langile berrien aurkezpenak euskaraz egin Politikari, teknikari, sustatzaileek esker oneko gutunak bidali euskaraz egiten duten elkarteetako partaideei

3. Erabilera, idatziz	
3.1.	Kirol elkarteetan, idatzizko kanpo harremanetan, euskararen erabilera gehitu. <i>Getxo markako</i> sustatzailearekin ere neurtu daiteke.
<i>Ekintzak</i>	Hizkuntza irizpideak zehaztu eta horiek estatutuetan blindatu Kanpora begirako bitartekoak euskaraz ere egotea, euskarari lehentasuna emanda Testuak euskaraz sortzeko baliabideak ezagutzera eman (hiztegiak, zuzentzaileak...)
3.2.	Idatzizko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.
<i>Ekintzak</i>	Hizkuntza irizpideak finkatu eta horiek betetzen direla ziurtatu Elkartearen barruan komunikazioa euskaraz jaso nahi duten bazkide, entrenatzaile... identifikatu eta horiei komunikazioa euskaraz helarazteko protokoloa zehaztu.
3.3.	Kirol entitateen irudian eta errotulazioan euskararen presentzia handitzea.
<i>Ekintzak</i>	Hizkuntza irizpideak zehaztu irudian eta horiek betetzen direla ziurtatu Elkarteko irudia eta hizkuntza-paisaia aztertu eta, dagokienean, txarto daudenak zuzendu eta gaztelaniaz bakarrik daudenak euskaratu

4. Euskalduntzea-prestakuntza	
4.1.	euskararen ezagutza handitu kirol entitateetako partaide eta entrenatzaileen artean. <i>Getxo markako</i> sustatzailearekin ere, neurtu daiteke.
<i>Ekintzak</i>	Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian (udalaren diru-laguntzak, berbalagun proiektua...) Motibazio saioak eskaini kirol elkarteetan euskara ikastera animatuz
4.2.	entrenatzaile euskaldun edo ia euskaldunei euskaraz entrenatzeko trebakuntza-saio bereziak ematea eta dagoeneko sortuta dagoen materiala erabiltzera motibatzea
<i>Ekintzak</i>	Entrenatzaile euskaldun eta motibatuak identifikatu eta horiek lidergo bezala eragitea gainerako entrenatzaileen artean Politikari, teknikari, sustatzaileek esker oneko gutunak bidali entrenamenduak euskaraz egiten duten elkarteetako entrenatzaileei

1. Getxo marka	
1.1.	Udal barruko entitate bezala, hizkuntza irizpideak markatzea euskararen erabilera gehituz. <i>GEHItu kirola</i> hitzarmena sinatu behar izatea <i>Getxo markako</i> partaide izateko.
<i>Ekintzak</i>	<i>Getxo markan</i> hizkuntza irizpideak ezarri eta horiek betetzen direla ziurtatu, horretarako ezinbestekoa <i>GEHItu kirola</i> egitasmoan hitzarmena sinatzea Elkarteek aurrerapausoak eman ditzaten motibatzea hitzarmen batetik bestera pasatzeko

6. Proiektuaren ebaluazioa

Denboraldi bukaeran kudeaketa planaren ebaluazioa egitea komeni da. Helburuak noraino bete diren ikusi eta hurrengo denboraldirako jarduerak zehazteko. Helburuak noraino bete diren ikusteko adierazleak neurtuko ditugu. Hasierako egoera zein zen, ikasturte batean lortu nahi genuen helburua eta ikasturte horretan lortu den balio erreala zehaztuko dugu adierazleen bitartez.

Ebaluazioa egiteko arduraduna *GEHtu kirolako* sustatzailea izango da elkarteei emandako fitxen bitartez. Fitxa horiek elkarteko partaideek bete egingo dituzte eta *GEHko* sustatzaileak ebaluatu egingo ditu hasierako egoerarekin konparatuz. Fitxa horietan adierazleak neurtu ahal izateko galderak agertuko dira.

Kudeaketa planerako ekintza zehatzen proposamena:

KIROL ELKARTEAK	HELBURUA	BITARTEKOA/EKINTZA
2009an izenpetu zituzten GEHI hitzarmenak betetzea	Kanpora begirako propaganda /komunikazioa elebitan egotea	Udalak horretarako daukan itzulpen zerbitzua erabiltzea. Gauza estatikoei lehentasuna eman eta aldatzen doazenezat (kartelak, gutunak...) plantilla bat egitea
Kirol elkarteetan lan egingo duten entrenatzaile guztiak parte hartzera behartuta egotea	Hizkuntzarekin sentsibilizatzea	Sentsibilizazio tailerrak, Bizarra Lepoan euskara elkarrekin antolatuta: - <i>Entrenatzaileek asko egin dezakete</i> , Ttakun elkarrekin. - <i>Zergatik ez?</i> Bizarra Lepoan euskara elkarrekin.
Entrenatzaileak kontratatzerako orduan hizkuntza irizpideak ezartzea.	Entrenamenduak euskaraz egin ahal izatea	* <i>Beharsarea</i> erabiltzea entrenatzaile eskuldunen lan-poltsa osatzeko Udalak entrenamenduak euskaraz egiteko diru-laguntzak eskaintzen ditu.
Entrenamenduak euskaraz egitea	8- 12 urteko umeek futbola behintzat euskaraz egin ahal izatea	Udalak dituen diru-laguntzak ikasturtekoak / denboraldiakoak izatea, urte naturalekoak izan beharrean. Kirolari famatuak etortzen jarraitzea, batez ere umeak motibatuzeko.
Eskola kirolean ume eskuldunak / erdaldunak eta futbol federatuan	Nahiz eta erdaldunak egon, entrenamenduak euskaraz egin ahal izatea	- Guztiak eskuldunak badira, entrenamendua euskaraz izango da. - Erdia baino gehiago eskulduna bada, entrenamenduak euskaraz, nahiz eta batzuetan erdaldunei bakarrik azalpenak eman behar izatea. - Erdia baino gutxiago eskulduna bada, nahiz eta euskara gutxiago erabili, animo oihuak, zerbakiak... euskaraz izango dira; eta euskaraz ulertzen dutenei, bakarka zuzentzean euskaraz egingo dio entrenatzaileak.
Baliabideen fitxak	Entrenatzaileei baliabideak ematea eta trebatzea horiek erabiltzeko	aukeratuzeurea.biz webgunean dauden baliabideak berriz banatu eta laguntza eskaintzea. <i>kinet sport</i> enpresak futbolerako egingo dituen euskarazko tekniken eta taktiken azalpena eta formakuntza
Futbol federatuan	Jokalarientzako sentsibilizazio saioak	<i>Zergatik ez?</i> tailerra. Bizarra Lepoan euskara elkarrekin

Getxo marka-futbola eskalduntzeko plangintza
 HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 2011-2012

Kirol saileko diru-laguntzak	Kirol arloko ohiko diru-laguntzetan agertzen da: kanpora begirako propaganda guztia elebitan egon behar dela	Udaleko euskara zerbitzuko itzulpen zerbitzua kirol elkarteentzat
------------------------------	--	---

*Beharsarea: Getxon euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko interneteko webgunea. Euskarazko lanak bideratu eta lan alorrean euskararen erabilera sustatzeko.

GETXO MARKA	HELBURUA	BITARTEKOA / EKINTZA
Getxoko marka, Getxoko ordezkari bezala, euskararen presentzia bermatuta egon behar da	Getxo markako ordezkari izateko, hitzarmenean hizkuntza irizpideak ezartzea.	Klausulak ezartzea hitzarmenean, besteak beste: - <i>GEHtu kirola</i> hitzarmena izenpetu behar izatea. - entrenamenduak euskaraz egitea / entrenatzaileak eskaldunak izatea. - komunikazioa gutxienez, elebitan egotea, euskarari lehentasuna emanda. - elkarteek sentsibilizazio tailerretan parte hartzea.
Udaleko euskara zerbitzuarekin koordinatzea	Euskara zerbitzuak dituen baliabideak kirol arloak ere ezagutzea kirol elkarteek erabili ditzaten	-Hilero bilerak egitea euskara eta kirol teknikariek; <i>GEHtu Kirola</i> ko sustatzaileak ere bilera horietan parte hartzea. -Entrenamenduen jarraipena egiten denean (8-12 urtekoena) kirol teknikariak ere esku hartzea euskaraz egiten ez diren entrenamenduetan. -Euskarazko entrenamenduak egiteko diru-laguntzak eskatu duten elkartei, ez badute euskaraz egiten, diru-laguntzak itzuli behar izatea (orain arte ez zaie itzultzea eskatu).

7. Bibliografia

Arakama, Jose Mari. (2012) *Euskararen erabilera planak herri administrazioetan*. HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa. Asmoz fundazioa (argitaratu gabea)

II. eranskina: Erabilera plana, txostena

IV. eranskina: kudeaketa plana

Mendizabal, Pablo. (2012) *Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra*. HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa. Asmoz fundazioa (argitaratu gabea)

Marko, J. Inazio. (2012) *Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak*. HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa. Asmoz fundazioa (argitaratu gabe)

Eusko Jaurlaritzza, Kultura Saila, Kirol Zuzendaritza. (2003) *Kirolaren euskal plana 2003-2007*

Getxoko Udala. (2010) *Getxon euskarak badu etorkizunik III* azterketa soziolinguistikoa